

Zuzia

HATZRESIA APUTZUZ, BIDEA ZABALDUZ

2. Zenbakia

2021eko uztaila

BERRIAK



GUDARIEN ALDE, ABUZTUAK 2 DENOK ETXARRIRA!

2021eko uztailaren 11n, Etxarri Aranatzeko udalak Juan Ignacio Erdozia Larraza "Axio", Pello Mariñelarena Imaz eta Josu Zabala Salegi "Basajaun" gudarien omenez herriko basoan zeuden oroitarriak kendu eta suntsitu zituen. Ez da lehenengo aldia Etxarri Aranatzeko udalak horrelako ekintza bat burutzen duena. Izan ere, 2020ko urtarrilaren 20an, oroitarriak kendu eta Arbizuko zabortegira eraman zituen bertan suntsituak izan zitezten. Oraingoan kendutako oroitarriak aurreko urtean gudarien aldeko herri

ekimen batek berretsitakoak izan dira. Gauzak horrela, izaera zuzena duen eraso hauen aurrean, erantzun zuzena antolatu beharrean dago JARDUN koordinadora, gudarien borroka-karen zilegitasuna eta duintasuna ezbaian jartzen duten erasoen aurrean izaera politikoko herri klabearen eman behar baita erantzuna. Hori dela eta, JARKI antolakunde iraultzaileak JARDUN-ek **abuztuaren 2an, astelehena, Etxarri-Aranatzetik 20:00etan antolatutako manifestazioan parte hartzeko deia egiten du.** Gure herri eta

kaleetatik borroka iraultzailearen arrastoak eta Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoaren alde eroritakoak ezabatu nahi dituztenek, alternatiba iraultzaileaz gain, Euskal Herri Langilea beti edukiko baitute aurrez aurre. Batzuek ilunpean eta isilpean era makurrean oroitarriak lapurtu izan dituzten bitartean, Euskal Herri Langilea era publikoan eta lotsarik gabe lerratuko da gudariak aurrera eramandako borrokaren eta euren memoriaren alde.

ASIMILAZIOTIK ERRESISTENTZIARA

Uztailaren 14an, Frantziako nazio egunaren aurkako manifestazioa burutu zen Donibane Lohitzunen, "Asimilaziotik erresistentziara" lemapean. Antolakuntzan parterik hartu ez arren, honen aldeko deialdia eta lanketa komunikatiboa burutu zuen JARDUN-ek Hego Euskal Herrian zehar. Izan ere, interes alderdikoak alde batera utzita, nazio eraikuntza eta klabe nazionaleko praktika politikorako urrats gisa ulertzen zuen koordinadorak Uztailaren 14ko ospakizunaren aurkako

dinamika. Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako jendez osatutako manifestazioa klabe nazionaleko eta Euskal Herriaren batasunaren aldeko errebindikazioz eta oihuz eraman zen aurrera. Honen bukaeran, antolatzaileek Ipar Euskal Herria pairatzen ari den asimilazio egoeraren gakoak eta honen ondorioen inguruko hausnarketa partekatu zuten, hauei aurre egiteko antolakuntza eta batasunerako deia egitearekin batera. Behin manifestazioa bukatuta,

Donibane Lohitzuneko Herriko Etxean pankarta jarri ondoren, Donibane Lohitzuneko auzapeza, Jean François Irigoien hau lapurtzen saiatu zen, manifestaziora bertaratutakoek honek pankarta lapurtzea ekidin zutelarik. Auzapezak gendarmeen-gatik ondo babestuta zegoela ikusterakoan, bere harro-keriari eta jarrera oldarkorrari eutsi zion. Azkenean, manifestari bat jotzen saiatu ostean, Herriko Etxera ihes egiten bukatu zuen.

UDAKO FORMAKUNTZARAKO MARTXA

Covid-19ren testuingurua eta JARDUN koordinadoraren lehen hastapenak medio, saretzeari, egituratzeari eta, azkenean, sukaldeko lanari bideratuta planteatu du aurtengo uda JARKI antolakunde iraultzaileak. Bide horretan, Alternatiba Iraultzailearen gorpuztean sakontzeko formakuntza politikoa halabeharrezko baldintza da. Hori dela eta, aisialdiaren bitartez formakuntza sustatzeko mendi martxa antolatu zuen antolakunde iraultzaileak

uztailaren 17 eta 18 bitartean, Etxarri Aranatzen. Larunbatean, antolakundeko militanteak zein honen ingurua, goizeko martxa baten ondoren, aktibismoaren nondik norakoak lantzeko taillerretan aritu ziren. Arratsaldean, ostera, sasia egondako militante iraultzaile batek bere ibilbide militantearen inguruko esperientzia eta militantziaren inguruko hausnarketak partekatu zituen. Egunari zuzien argipeko ekitaldi politiko batek eman zion amaiera.

Igandean, ekonomia politikoaren inguruko hitzaldi parte-hartzailea eman zen eta, bukatzeko, berriz, nazio auziaren hitzaldia. Oro har, hasiera bateko antolakuntzari begira hobetzeke dauden zenbait aferak kenduta, antolakunde iraultzaileak balorazio positiboa egiten du aurrera eramandako ekimenaz. Izan ere, mendi martxan formatua era egokian planteatuta formakuntzarako dinamika egokiko formatua dela argi ikusi du JARKI-k.



JARDUN – EUSKAL HERRI LANGILEAREN ALTERNATIBA

Aurreko Zuzian ikusi genuenez, JARKI antolakundearen apustu estrategikoa euskal estatu independente eta sozialistaren erdiespena helburu duten norbanako zein antolakunde iraultzaileak batu, eta estrategia beraren pean jarritz prozesu iraultzailea aurrera eramateko antolakuntza markoak eratzea da. Antolakuntza marko horiek JARDUN - Euskal Herri Langilearen Alternatibaren forma hartu dute. JARDUN, Euskal Herriko eragile ezberdinez osaturiko koordinadora da, independentista, sozialista eta iraultzailea.

Koordinadoraren oinarriak "Txinparta" izeneko dokumentuak jasotzen ditu. Bertan, minimo ideologikoak, JARDUN-en definizioa eta funtzioa, berau osatzen duten antolakundeena eta barne antolaketa eta funtzionamendua zehazten dira. Azkenik, koordinadoraren programa politikoa jasotzen da. Bide honetan, Euskal Herri Langilearen Alternatibaren parte den edo berari batu nahi zaion edozein antolakundek Txinpartan jasotako oinarriak onartu eta errespetatu behar ditu, dagozkien lan-ildoak lantzeko autonomiarekin baina JARDUN-en zehaztapen taktiko eta estrategikoak barneratuz eta elikatuz.

"JARDUN - Euskal Herri Langilearen Alternatibaz hitz egiten dugunean, Euskal Herri Langilearen beharrianak aseko dituen osotariko alternatiba politikoaz ari gara"

JARDUN - Euskal Herri Langilearen Alternatibaz hitz egiten dugunean, Euskal Herri Langilearen beharrianak aseko dituen osotariko alternatiba politikoaz ari gara, ideologia eta alternatiba politiko bat elkarbanatzen duten antolakunde, borroka marko eta militanten bilgune izan behar duena. Izan ere, Euskal Herrian sortzen diren borroka esparruen aurrean, tresna ezberdinak behar dira egunerokotasunean agertzen diren trabak modu efektiboan gainditzeko.

JARDUN, Euskal Herriko masa kritiko independentista eta sozialista aktibatze eta antolatze tresna izateko asmoz sortu da, bere eguneroko lan apalaren bitartez lortu beharreko erreferentzialtasuna baliatuta, estatu zapaltzaileekiko hausturara eramango gaituen prozesu iraultzailea gidatzeko gaitasuna garatuz.

Erreferentzialtasun hori garatzeko bidean zintotasuna, apaltasuna eta gardentasuna beharrezkotzat ikusten ditu JARDUN-ek, eta bide horretan, jarrera makurrak eta ezkutuko manipulazioak ekidindo ditu eta formalki jasotako funtzionamendua bermatu.

Ez da bide erraza izaten ari baina gezurraren eta jarrera toxikoen normalizazioak ezinikusiak, konfiantza eza eta militantzia eredu ustelen birproduktzioa besterik ez du ekarriko. Hala, norbanako edo kolektiboren batek Euskal Herri Langilearen Alternatiban zatiketak edo arrakalak sustatzea, funtzionamendu eta egituraketa informaletan erortzea edota bestelako antolakunde zein markoetan entrismoa praktikatzeko kanporaketarako arrazoiak izango dira.

JARDUN konfrontaziorako tresna da, konfrontazioa estatu zapaltzaileen boterea higitu eta, aldi berean, kontrabotere espazioak sortzen joateko prozesu gisa ulertuz. Gauzak horrela, koordinadorak estatuen errepresioari aurre egiteko beharrezkoak diren egiturez hornituta egon beharko du. Era berean, bere baitako militantzia, antolakunde eta taldeen arteko elkartasuna ere bultzatu beharko du, komunitate sozio-politikoak eratzearen praxia berreskuratuz, bere gorputz soziala osatuz joateko. Honez gain, desbideraketa ideologiko eta politikoak ekiditeko, pentsamendu kritikoaren sorrera eta militantziaren etengabeko formazioa funtsezkoa eta lehentasunezkoa izango da beti.





Koordinadoraren baitako antolakundeen batasunak ez du JARDUN-etik kanpo kokatzen diren taldeekin elkarlana ukatzen. Are gehiago, beste antolakundeekin maila ezberdinetan politika sektorialak aurrera eramateko elkarlanei garrantzia emango zaie, bereziki, herri mugimendu zein mugimendu sozialekin, betiere hauen independentzia eta funtzionamendua errespetatuz. Hala ere, koordinadoraz kanpoko taldeekiko aliantza politika izaera taktikokoa izango da beti.

Koordinadorak aurrera eramango dituen aliantza estrategikoak bere baitako antolakundeen artekoak izango dira, hots, koordinadora antolakunde ezberdinen arteko aliantza estrategikoa da. Bertara batu nahi duen antolakunde orok, Txinparta dokumentuan jasotakoa onartzeaz gain, ondo definitutako funtzionamendua eta egituraketa izan beharko ditu eta dagozkion marko eta egitekoetara mugatu beharko da.

JARDUN ETA PROZESU IRAULTZAILEA

Askapen prozesu batean subjektu politiko ezberdinek hartzen dute parte. Borrokaren garapenean zehar aktore politiko bakoitzaren parte hartze, kontzientzia maila eta aktibotasunaren arabera, masa kritikoaren eta masa numerikoaren arteko mailakatzea ematen da.

Masa kritikoa, kolektiboki antolatutako pertsona multzoa da, askapen borrokaren baitan dabilzan eta parametro iraultzaileetan lerratuta dauden militanteez osatua. Masa kritikoari zuzenki loturik dago abangoardia kontzeptua. Abangoardiaz mintzo

garenean, espazio eta denbora zehatz batean masa kritiko batek burutzen duen funtzio sozialaz ari gara. Masa kritiko batek askapen borrokan bidea irekitzea lortzen duenean eta, bere lanaren ondorioz, masa handiago batengan lortu duen erreferentzialtasuna eta zilegitasunaren bidez honek jarraitzea lortzen duenean betetzen du abangoardia funtzioa. Beraz, abangoardia ez da nork bere buruari jartzen dion etiketa praktika politiko arrakastatsu baten bidez masa kritiko bati onartzen zaion izatea baizik, betierekoa ez dena. Abangoardiaren papera praktika iraultzaile, konprometitu, koherente, zintzo eta apalaren bitartez lortzen den funtzioa da. Denbora luzez garaturiko praktikaren emaitzak erakusten du zeinek duen iraultzaren antolaketa bidean aurrerapausoak emateko gaitasuna eta ahalmena.

JARDUN koordinadoraren existentziak masa kritiko baten existentzia bera suposatzen du, hau da, aktibaturiko eta parametro iraultzaileetan lerraturiko militante ezberdinen antolakuntza kolektiboa, apurka-apurka hedatuz eta bere antolakuntzan eta praktikan sakonduz joan behar duena. Baina abangoardiaren funtzio soziala betetzeko, antolatu gabeko Euskal Herri Langileko norbanako zein sektoreak erakartzea funtsezkoa da. Honetarako, konfrontazioa eta presentzia politiko jarraitua ezinbestekoak dira, gero eta zapalduen sektore gehiagok helduz irekitako bideari, eta parametro iraultzaileetan kokaturiko antolakuntza eta borroka garatuz prozesu iraultzailea elikatu. JARDUN - Euskal Herri Langilearen Alternatiba askapen nazional eta sozialaren aldeko borrokaren gakoak markatzeko gai izan behar da.

Masa kritikoaren beste aldean masa numeriko deritzona aurki dezakegu. Masa numerikoa, masa kritikoaren lanari esker antolakuntzaren bideari ekiten diotenek osatzen dute. Antolakuntzaren parte dira, baina ez dute oraindik askapenaren bidea irekitzearen funtzioan parte hartzen. Hau da, ez dute estrategia eta taktikaren zehaztapenean parte hartzen. Masa kritikoak abangoardia gisa garatzea lortzen badu, masa numerikoa erretagoardia funtzioa betetzen hasiko da, hau da, abangoardiari bultzada ematen, hau elikatzen eta etsaiaren erasoengandik eta aurrerapausoengandik babesten. Abangoardia eta erretagoardia subjektu politiko koherente baten parte diren eta elkarloturik dauden bi alde dira. Bien arteko komunikazio zuzena dago eta nahiz eta bakoitzak askapen borrokan funtzio bat bete, bata ezin da bestea gabe ulertu.

"Abangoardia eta erretagoardia subjektu politiko koherente baten parte diren eta elkarloturik dauden bi alde dira."

Bi funtzio hauek konpromiso eta egituraketa mota ezberdinak eskatzen dituzte. Honek, Euskal Herri Langilearen pluraltasunaz elikatu eta bere baitan aurkez daitezkeen norbanako eta kolektibo ezberdinen parte hartzerako espazioak sortzeko aukera eta beharra dakartzkio koordinadorari, aktore bakoitzak bere gaitasunaren arabera prozesu iraultzaileari ekarpena egin diezaion.

HERRI MUGIMENDUA

PROZESU IRAULTZAILEAN

Euskal Herrian badira, tokian toki, estrategia politiko nazional batekin bat egin gabe ere "eraldatzailak" diren hainbat subjektu politiko. Hauetako asko "herri mugimendu" deritzonaren zati dira. Herri mugimenduko parte diren aktoreak osaera aldetik nahiko heterogeneoak izan ohi dira, hots, oinarri ideologiko zabalak izan ohi dituzte eta espektro politikoko esparru ezberdinetako jendez osatuta egon ohi dira. Oro har, talde lokalak dira, nahiz eta kasuan kasu antzeko edota inguruko herri mugimenduko bestelako taldeekin koordinazio marko ezberdinak abiarazi izan dituzten.

Herri mugimenduaren izaeragatik beragatik albo batera utzi behar dira honek prozesu iraultzailean bete beharreko paperaren idealizazioak. Izan ere, herri mugimendua prozesu honen erdigunean jartzeak lokalismoan eta espontaneismoan erortzea, planteamendu nazional koherente eta egingarri bat aurrera eramateko ezintasuna eta herri mugimenduak kontrolatu nahia ekar baititzake, besteak beste. Bestalde, aipaturiko ezaugarriengatik herri mugimenduak ezin du Alternatiba Iraultzailearen atal organiko izan, honek lerro

"Antolakunde batek ezin du askapen prozesuaren karga guztia bere gain hartu."

politiko jakin bat ezartzea, antolakuntza marko ezberdinetara azpiratzea eta, beraz, herri mugimendu izaeraren galera suposatzen baitu. Honela, nahiz eta herri mugimenduak masa numerikoa elikatzeko orduan garrantzia handia duen, masa kritikoarekiko harreman organikorik ez duenez, ez du erretagoardia funtzioa betetzen. Aldi berean, argi geratu behar da masa kritikoaren funtzioa ez dela herri mugimendua kontrolatzea, hauek bere interesen alde jardun dezaten.

Horrez gain, Euskal Herri Langilearen Alternatibak esperientzia ezberdinen akatsetatik ikasi eta mugimendu forma gainditu beharra dauka. Hau da, koordinadorara batuko diren taldeak formalki jasotako egituraketa eta funtzionamendua duten antolakundeak izan beharko dira eta ez "mugimendu" edo "sare" informal gisa diharduten eragileak. Talde hauek, posizio eta izaera difusoak zein funtzionamendu informala gailentzeko joerak izan ohi dituzte, autonomadak eta argitasun falta bultzatuz.

SEKTORIALIZAZIOA, ZATIAK ETA OSOTASUNA

Antolakunde batek ezin du askapen prozesuaren karga guztia bere gain hartu. Horretarako, espazio politiko berriak sortu behar dira askapen prozesuaren baitan kokatzen diren borroka esparru espezifikoak lantzeko hala nola antolakunde antierrepresiboa, emakume langilearen auzia landuko duena, proiektu komunikatiboa... Antolakunde sektorial hauek izaera nazionala edukiko dute eta aipatu bezala hauek izango dira JARDUN-en erabaki marko nagusian ordezkatuak egongo direnak.

Antolakunde sektorial bakoitzak, dagokion esparruan egingo du lan, bikoizketak (funtzio bereko bi antolakunde egotea) ekidinez eta berari egokituko zaio koordinadoraren baitan borroka sektorialak estrategia amankomunari lotzea eta honi ekarpena egitea. Marko bakoitzak bere plangintza eta tenporizazioa edukiko ditu, bere erritmo, behar eta dinamika propioak, zeinak, bere militantziak erabakiko dituen. Honez gain, koordinadoraren oinarri ideologiko eta estrategiaren gainean eraikitako diskurtso propioa izango du esparru bakoitzak. Euskal Herriko subjektu iraultzaile gehienak mobilizatzeko helburuarekin, gardentasun osoz eta sektarismoa gaindituz, dinamika ezberdinetan buru belarri jardungo duten militanteak aktibatzeke espazio sektorial zabalak osatu behar dira.

"JARDUN Euskal Herrian parametro iraultzaileetan garatzen den esperientzia ororen bilgune izan behar da, hauei logika estrategikoa erantsiz eta proiektu politiko baten osotasunaren parte bilakatuz. "

Logika estrategikorik gabe, epe luzerako begirada galdurik eta egungo errealitateari Alternatiba Integral bat eskaini ezinda jarduten duten antolakundeak ez dira inoiz taktizismotik edota esperientzia isolatuetatik baino haratago joaten. JARDUN Euskal Herrian parametro iraultzaileetan garatzen den esperientzia ororen bilgune izan behar da, hauei logika estrategikoa erantsiz eta proiektu politiko baten osotasunaren parte bilakatuz. Horrela, borroka ezberdinak aurrera eramatea bermatzeaz gain, borroka hauek Alternatiba Iraultzailearekin bat egitea ahalbidetzen da, era isolatuan ulertutako borrokak kolektibo bilakatuz eta hauen indarra eta elkarreragina areagotuz.

Laburbilduz, JARDUN-ek konfrontazioaren eta aktibitatearen bidez Euskal Herri Langilearen ideologizazioa eta antolaketa jarraitua sustatu behar ditu, lan etengabearen, zintzotasunaren eta proiektu politikoaren egokitasunaren bidetik masa numerikoa zein kritikoa garatuz. Hau da, potentzialtasun iraultzailea duen klase soziala, Euskal Herri Langilea, borrokara lotzeko aukera eman behar du JARDUN-ek, eta masa kritiko zein erretagoardia gisa antolatzea lortu, Euskal Langileri Iraultzaile gisa klase hau subjektu politiko kontziente eta antolatu bilakatuz. Prozesu iraultzailean, beraz, kanpora begirako lanak Euskal Herri Langilearen Alternatibaren funtzio nagusietako bat izan behar du. Azken finean, zenbat eta Euskal Herri Langilearen sektore gehiago batu JARDUN-era, Euskal Herri Langilearen Alternatibak orduan eta ahalmen handiagoa izango du borroka garatzeko.

"Euskal Herri Langilea, borrokara lotzeko aukera eman behar du JARDUN-ek, eta masa kritiko zein erretagoardia gisa antolatzea lortu"



·2021eko Aberri Eguna, Gernika

AMNISTIA, LUZERA BEGIRAKO URGENTZIA BAT



Amnistiaren aldarriak entzute handia izan du azken urteetan Euskal Herriko hainbat sektoreen artean. Eztabaida instituzionaletan, aldiz, kontzeptuak berak duen berezko izaera erradikala dela eta, apurka-apurka zokoratua izan den terminoa da. Gauzak honela, eztabaida politikotik baztertzeko saiakerak saiakera, preso politikoei eta hauek eragin zituzten baldintzek bere horretan dirauten bitartean Amnistiak zentraltasuna izango du Euskal Herri Langilearen alde dihardugunon jardunean.

Amnistia ez da indultu bat, ezta haien izaera politikoa aitortuta ematen den presoen kaleratze soil bat ere. Amnistia gizartearen baloreen aldaketa ere bada, zeinaren bitartez Euskal Herri Langilearen mesedetan jardutearren jazarriak direnen askatasuna berreskuratzeaz gain, euren borrokaren zilegitasuna onartua ikusten duten. Aurkara, jazarzaileak euren ekintzengatik dagozkien zigorrak jasotzea dakar.

Amnistiak izaera politikoa du eta Euskal Herri Langilearen aktibazio, apurketa eta mobilizazioaren garaipenaren emaitza izan behar da.

Amnistiak izaera politikoa du eta Euskal Herri Langilearen aktibazio, apurketa eta mobilizazioaren garaipenaren emaitza izan behar da. Euskal Herri Langilearen askatasunerantzko ibilbidearekin politikoki hertsiki uztartutako terminoa da, beraz, Amnistia. Honen aldeko borrokak, alderdi burgesei sustatutako ordezkatzeko bidezko demokrazia burgesari kontrajarritako parte hartze aktibo eta

zuzena dakartza. Izan ere, Amnistia, Euskal Herri Langilea arrotzak eta estatuaren biolentziaren monopolioaren bitartez inposatuak zaizkion baloreei aurre egiteko legez kanpoko izaerako ekintzak burutu, babestu edota ulertzera behartua ikusterakoan gorpuzten den beharra da.


Ez da, inondik inora, estatuek inposatutako legediarekin zerikusia daukan terminoa, Euskal Herri Langilearen borrokak berezkoa duen zilegitasunarekin lotura zuzena duena baizik. Dikotomia honek muinean argi uzten du Euskal Herri Langilearentzat eta kapitalismoarentzat Amnistia ez dela gauza bera. Izan ere, lehenengoarentzat askatasunerako ezinbesteko baldintza den bitartean, bigarrenarentzat, inpunitateari eusteko baliabidea da, horren adibiderik argiena 1978ko Espainiako Amnistia faltsuan dagoelarik.

Honen lorpena ibilbide luze baten ondorio izango den arren, Amnistiaren aldeko borrokaren baitan, preso politikoei pairatzen dituzten eguneroko zapalketen edota suerta daitezkeen egoera ezberdinen aurrean lanketa politikoa egin beharra dago, askotan, izaera partziala duten borrokak garatuz. Hauek, presoek pairatzen dituzten jazarpen baldintzak arintzeko beharrezkoak diren arren, ezin dira inolaz ere, burutu beharreko amnistiaren aldeko lanketa politikoen xede bihurtu. Hau da, lanketa hauei uko ez egin eta aurrera eraman arren, hauek Amnistia klabe komunikatiboan eta, batez ere, era estrategikoan aldarrikatuz planteatu behar dira. Honela, erreformismoan eta posibilismoan erortzea eta Amnistiaren aldeko borrokaren izatea lausotzea ekidingo da.

Amnistia, azken finean, amnistia berriak beharrezkoak ez izateko baldintzak sortzean datza, independentzia eta sozialismoa erdietsi eta Euskal Langileri Iraultzailearen proiektu politikoen gauzatzerako bidean derrigorrezko baldintza delarik. Amnistia ez baitoa, inolaz ere, adiskidetze edota klaseen arteko elkar ulertze batetara bideratua, Euskal Herri Langilearen garaipenera baizik.

Gauzak honela, bere burua iraultzailetzat duen ororentzat ezinbesteko egitekoak dira preso politiko guztientzat Amnistia aldarrikatzea, hauei babes osoa adieraztea, presoen aldeko borroka partzialetara mugatzea edota hauen lanketa ikuspegi humanista batetik burutzea ekiditea, eta preso politikoen gaia bere osotasunean jorratzeko dinamikak edota espazioen sorrera ahalbidetu behar duten baldintzak sortzea. Hortaz, oztopoak oztopo norabide horretan egingo dugu lan.

IZAERA DEMOKRATIKOAZ MINTZO



"erabaki bat, edo ekintza bat demokratikoa izango da, demokrazia gehiago ekarri badu."

Egunerokotasunean behin eta berriz entzuten dugu "demokrazia" hitza. Ezkertiar, eskuindar, euskal herritar, mexikar edo dena delakoa izan, "demokratikoa izatea gauza ona da". Zehaztasun falta honen aurrean, demokraziaz eta ekintza ezberdinen izaera demokratikoz hausnartzea beharrezkoa da.

Demokraziaren esanahiari so eginik, jatorriz behintzat "herriaren boterea" esan nahi du. Ez elite baten boterea, ezta familia batena ere. Hala ere, herriaren boterea tokian toki eta garai bakoitzean modu ezberdinetan uler daiteke. Gaur egunera ekarriz, demokrazia edo herriaren boterea modu integralean garatzea politika fikzioa da, tamalez. Honen aurrean, kontzeptua gure analisi eta proposamen politikoetan modu funtzionalean txertatzearen, demokratizazioa aurrera eta atzera egin dezakeen prozesu gisa ulertuz "demokrazia gehiagoz" eta "demokrazia gutxiagoz"

hitz egin dezakegu. Hala, erabaki bat, edo ekintza bat demokratikoa izango da, demokrazia gehiago ekarri badu.

Diktadura faxista baten pean adibidez, demokratikoagoa da parlamentarismo burgesa proposatzea. Aldi berean, parlamentarismo burgesaren baitan, demokratikoagoa da sozialismoa aldarrikatzea.

Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea "demokrazia" ezin dela sistema politiko baten formaren arabera edo lan egiteko modu baten arabera esleitu. Azken finean, prozesu politiko bat demokratikoa dela esango dugu herriaren boterea handitzea lortu badu. Alderantziz, prozesu politiko batek herriaren boterea txikitzen badu, ez da demokratikoa. Politikaren edukiaz jabetu behar gara, ez formaz. Eta noski, errealitate politikoan zapaltzaileak eta zapalduak existitzen direla aldarrikatu behar dugu, gainditu gabeko gatazka baten baitan. Bide honetan, gero eta zapalketa gutxiago egon, orduan eta egoera demokratikoagoa izango da.

Baina, nola neurtzen da herriaren boterea handitzen edo txikitzen

ote den? Neurketa egiten duen aktorearen ideologiaren arabera adierazle ezberdinak erabiliko dira hau neurtzeko. Adibidez, liberal batentzat demokratikoagoa da merkatu askea egotea, jabetza pribaturako aukera legez babestua egotea, herentzia eskubidea bermatua egotea... Iraultzaile batentzat aldiz, demokrazia adierazle izan daitezke pobrezia hedapena jaitea, esplotazio tasa jaitea (desagertu arte), parte hartze politikoa irisgarria izatea eta abar. Iraultzaile baten ikuspegitik gehitu beharra dago, "herriaren boterea"-z hitz egitean, ez direla herritar edo biztanle guztiak kontuan hartzen. Esplotatzaileak eta zapaltzaileak kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira.

Azken finean, prozesu politiko bat demokratikoa dela esango dugu herriaren boterea handitzea lortu badu.

Bozkari loturik azaltzen zaigu demokrazia terminoa askotan. Itxuraz, zerbait demokratikoagoa izango da bozkaz erabaki bada. Egoera posible bat irudikatzearen, goazen 1986. urtera. Martxoaren 12an, espainiar estatuan NATOk kide izan edo ez erabakitzeko erreferenduma burutu zen. Parte hartzea %59,42koa izan zen estatu espainolean. Hego Euskal Herrian maitza ezezkoa izan zen arren, datzi honetarako Espainia ailako datuak baliatuko ditugu. ozkaketan, baiezkua atera zen statu espainiarrean. Hortaz, txuraz, formaz, espainolentzat rozesu demokratiko bat izan zen ATOn sartzea. Erdiak baino ehiagok bozkatu zuen, eta aiezkoa atera zen.



Fikziozko adibide bat gehitzearren: Euskal Herriko biztanleriak esklabo bilakatzea adostuko balu erreferendum bidez, ez litzateke inola ere erabaki demokratiko bat izango, herriak boterea galtzen baitu.

Baina formaz haratago, zein da NATOn sartzearen edukia? Bada, espainiarren kontu politiko eta militarren Madriletik kudeatuta nahikoa urrun ez eta Estatu Batuetatik kudeatzera igarotzea. Gainera, bertan parte hartzeak NATOren ekintzak babestea suposatzen du nazioarte mailan, eta kide den edozein estatutan eman litekeen iraultza saiakera baten aurrean, NATOk segituan interbenituko luke. Hau da, espainiar herritarren parte hartze eta esku hartze politikorako ahalmena are gehiago murriztu zen NATOn sartzean. Hortaz, NATOn sartzea, herritar guztiei zuzendutako erreferendum baten bidez erabaki arren, herriaren botereari so eginik, prozesu guztiz antidemokratikoa da.

Fikziozko adibide bat gehitzearren: Euskal Herriko biztanleriak esklabo bilakatzea adostuko balu erreferendum bidez, ez litzateke

inola ere erabaki demokratiko bat izango, herriak boterea galtzen baitu. Berdin du ze formaren bitartez burutu aldaketa hori, bozkaz, zoriz edo estatu kolpez.

Indarkeriak hamaika definizio jaso ditzake. Gure aburuz, norbanako zein talde bati erabakiak hartzeko aukera eta hauek betearazteko ahalmena murriztean edota kentzean datza indarkeria. Indarkeriak izaera mugatzailea du, koertzio izaera. Intentsitate maila ezberdinekin agertzen da indarkeria gizartean: erabakiak hartzeko aukera guztiz ezabatuz (erailketa bat, esaterako), edo beste mota batzuetako eraso gisa, bizitza sozialaren mugatzeak, tortura, klase jatorria dela eta ezin hautatu ahal izatea...

Hortaz, itxuraz, formari so eginik, "indarkeria" tresna ez demokratiko gisa azaltzen da. Pertsonen boterea murrizten du bera praktikan ipintzean. Eta hein batean horrela da. Poliziaren indarkeriak esaterako, herritarrok erasotzen gaitu, eta boterea murrizten digu. Noski, indarkeria hau normala eta beharrezkoa da zapaltzaileen ahotan. Guri interesatzen zaiguna, aldiz, zapalduok bideratutako indarkeria da, zapaltzaileen boterea murrizteari begira.

Demagun, 1973an diktadura bateko gobernuburua erailtzen

duela erakunde iraultzaile batek. Pertsona horrekiko indarkeria ekintzak pertsona horren hautaketa ahalmena murriztu du. Noski, jada ez dago bizirik! Baina testuinguruari so eginik, eta indibiduoan zentratu ordez kolektiboan zentratuz, "herriak" botere gehiago izango du gobernuburua erail eta diktaduraren jarraipen eza ahalbidetzen bada, beste sistema politiko demokratikoago batera bidea irekiz edota iraultzaren antolaketan sakonduz.

Egun demokraziaren inguruan egiten diren adierazpenak anbiguoak izan ohi dira, mantra bat edo marketing produktu itxura duen kontzeptua izatetik gertu. Hala ere, iraultzaileok argi izan behar dugu demokrazia gehiago nahi dugula, zapalketak gutxitu eta langileriak botere gehiago izatea, alegia. Bide horretan, botere gehiago lortzeko asmoz tresna ezberdinak erabili ditzakegu. Tresna beraren formaz haratago, herriaren boterea handitu eta zapalketak gutxitzen badituzte, guztiz demokratikoak izango dira.

Bide horretan, botere gehiago lortzeko asmoz tresna ezberdinak erabili ditzakegu. Tresna beraren formaz haratago, herriaren boterea handitu eta zapalketak gutxitzen badituzte, guztiz demokratikoak izango dira.

Erreferendumak, protestak, negoziazioak, matxinadak, propaganda, gerrilla armatuak, sabotaiak... tresnak dira. Zapaltzaileek ez dute zalantzarik egingo gu eta gure hautatze ahalmena erasotzeko beharrezkoa baderitzone. Ez dezagun haien propaganda irentsi eta handitu dezagun langileriaren boterea. Tresnak soberan daude.

JAZARPENEA

Jazarpena botere politiko ororen funtzio eta tresna da, aldi berean, gizartearen kontrol soziala bermatzera bideratuta dagoena eta biolentzia oinarri duena. Honen helburua, edozein antolaketa forma edota botereri arrotzak zein arriskutsuak egiten zaizkion antolaketa formak errotoz moztu edota euren agerpena galaraztea da.

Klaseetan banatutako gizarteetan jazarpena aurrera eramaten dutenak boterea duen klasearen ordezkariak eta hauen borrarroak izan ohi dira. Jazarpena jasaten dutenak, aldiz, hauen interesak zalantzan jar ditzakeen edonor, bereziki, klase zapalduaren sektore kontziente eta antolatuenak eta hauen ingurua. Izan ere, euren interesetik edozein mehatxuren aurrean zapaltzaileek estatuaren mekanismoak eta hau osatzen duten instituzioak baliatuko dituzte euren nagusitasuna bermatzeko. Honetarako beharrezkoa dute biolentziaren monopolioa, euren biolentzia orden gisa saltzen duten bitartean estatuaren eta kapitalaren aurkako edozelako dinamikak biolentzotzat jo eta salatu egingo dituzte hauen zilegitasuna deuseztatzeko.

Estatuak eta burgesek horrenbestetan aldarrikatzen duten "ordena publikoa" biolentziaren eta jazarpenaren bidetik ezartzen dute, gatazkan dauden bi aldean artean nekez egongo baita luze iraungo duen elkarbizitza baketsurik. Etsaiak garbi dauka bere nagusitasuna auzitan jartzen duen edozeini eman beharreko erantzuna zein den, eta baita boterea mantentzeko edozertarako prest dagoela ere, estatuaren helburu nagusia edozeren gainetik klase zapaltzailearen interesak eta nagusitasuna beldurraren eta zuzeneko biolentziaren bidez bermatzea baita.


Hala ere, jazarpenak honen aurkako erreakzioak eragin ditzake eta baita gizartearen baitako kontraesanak agerian utzi ere. Honela, estatu burgesak jazarpen orokortuko baldintzak sorrarazte aldera, erabat gordinak eta oso agerikoak diren metodoak erabiltzeaz gain, antzemateko zailagoak diren mekanismoak ere baliatzen ditu, jazarpena gizartearen gehiengoaren tolerantzia eta kontzientzia mailara egokituz. Horrekin batera, edozein aukera aprobetxatzen du izaera errepresiboko edozein ekintza edota neurri berrien onarpena bermatzeko aurre-lanketa burutzeko. Azken honen helburua gatazken intentsitatea handitzen denerako jazarpenerako oinarri juridiko hobeak ezartzea, sektore ezberdinen kriminalizazioa eta lehenago normalizatuak zeuden praktikak desprestigiatzea dira besteak beste.

Une bakoitzean hartzen duen forma hartzen duela ere estatuaren jazarpena jarraitua da. Ez da une zehatz batean erabiltzen den mekanismo bat, estatuaren funtzioari eta izateari hertsiki lotuta dagoen zerbait baizik. Egiturazko izaera dauka. Beraz, ezin esan daiteke jazarpenaren iturria zapalkuntza ezberdinen aurrean erantzuten dutenak direnik, zapalkuntzok betierekotu nahi dituztenak baizik. Honela, jazarpentzat uler dezakegu gobernuan indarrean dauden botere harremanak auzitan jartzen dituzten norbanako zein taldeen aurka klase zapaltzaileak darabilen erregulazioa.

Euskal Herriaren kasuan, Euskal Herri Langilearen klase zein nazio zapalkuntza betikotu eta bermatzera bideratuta doa jazarpena. Erresistentzia apurtu eta azpiraketan sakontzea ahalbidetzen duten jazarpen forma ezberdinak baliatzen dituzte espainiar zein frantziar estatuek, mehatxu jarraiko egoera sortuz Euskal Herri Langilea otzan eta erabat menperatuta mantentzeko.

Alde batetik, jazarpen politikoa aurki dezakegu, zeharkako kontrolera eta errepresio formal eta informalera bideratua. Metodo informalen bidez, desprestigio kanpainen bitartez zein langile klasearen deshumanizazioaren bitartez, adibidez, jazarpenarentzako aproposa den giroa sortzea bilatzen da gizarteko elementu ezberdinen ideologian eraginez. Kasuotan, ohikoa izaten da indar sasi-ezkertiarren kolaborazio edota isiltasuna. Bestalde, kontrol forma zuzenari eta jazarpen zuzenari dagokienez, askatasun politikoen murrizketak eta gizartearen sektore jakin batzuen aurka jotzeko marko judiziala eta poliziala finkatzen dira. Horrela, behin inpuniate giroa sortuta, jazarpen judizial eta polizialerako jarduera markoa ezartzen da, jazarpen kulturala elikatuko duen testuingurua sortzen duen bitartean. Honela, jazarpen politikoa bestelako jazarpen formak aplikatzeko testuinguru egoki bat sortzeko beharrezkoa da.





Jarki★

Beste jazarpen forma bat jazarpen poliziala eta militarra da. Izaera polizial zein militarretako instituzioek burutzen duten zuzeneko kontrol forma, jazarpen formal batera bideratuta doana. Jazarpen hau sistematikoa eta zehatza izateaz gain, gizartearen tentsionamendu eta muturreko polarizazio egoeretan erabat arbitrarioa izan ohi da, gizartearen eta, batez ere, jazarriak izaten ari diren sektoreengan terrore sententzia areagotzeko. Indar hauek militante politiko zein jazarri beharreko sektoreen atxilotetze baliatzen dira. Atxiloteta, gailentze eta neurrigabeko indarraren erabilera oinarritzen den ekintza da, atxilotua den pertsonarengan babesgabatasuna, zaurgarritasuna eta nahasmena sortzea du helburu eta torturari bide emateko eta hau burutzeko lehenengo pausua izan ohi da.

Tortura arma politiko moduan erabiltzen du estatuak, pertsonak kontrolatzeko eta disidentzia politikoa suntsitzeko bidean. Hori dela eta, estatu instrumentu gisa baliatzen denez gero, atxiloteta guzuekin hertsiki lotuta dago. Torturaz ari garenean pertsona bati eragiten zaizkion sufrimendu latzez ari gara, izaera fisikoak zein psikologikoak izan ditzaketenak. Torturaren helburuak informazioa ateratzea, zigortzea eta gizartearen beldurra hedatzea dira besteak beste. Denbora aurrera joatearekin eta gizartearen iritzi zein legedi eta itun nazionalekin,

torturaren praktika murriztera baino honen arrastoak gutxitzera bideratutako tortura forma ezberdinak garatu dira. Izan ere, estatu batek ere ez du inoiz onartuko burutzen duen torturaren erabilera sistematikoa.

Aurki dezakegun beste jazarpen forma bat jazarpen judizial eta administratiboa da, kontrol zuzeneko eta izaera formaleko jazarpen forma. Burgesiak inposatutako eta beren interesei erantzuten dieten marko juridikoaz eta honen aplikazioaz arduratzen diren instituzioez osatuta dago, horien artean, epaitegiak eta espetxeak. Instituzio hauek aplikatzen dituzten kode legalek burgesiaren pribilegioei eustea dute xede, gobernuaren aurka aritzea delitua edota krimena bilakatuz eta zigorra disuasio elementu gisa baliatuz. Egungo sistema penaltaren arabera, denbora da zigorrak neurtzeko aplikatzen den unitatea. Honez gain, balio ekonomikoan neurtzen diren zigorrak ere badaude, mugimendu politikoak ekonomikoki itotzera edota beharrezkoak dituzten diru iturriak xahutzera bideratuta daudenak.

Jazarpen juridiko eta administratiboaren bidez, instituzio judizialek eta legediek sarekadak eta tortura era sistematikoan gauzatzea ahalbidetzen dute, jazarpenari babesa emanez. Hori dela eta, ez da harritzekoa, indarrean dagoen legediaren gaintik estatuak era sistematikoan aurrera daramatzen jazarpen praktiken aurrean, instituzio judizialak mantentzen duten isiltasuna eta askotan lankidetzatza.

Azkenik jazarpen kultural eta soziala gelditzen zaigu, gizartearen izaera informaleko jazarpena burutzera bideratutako zeharkako kontrol forma, harreman interpersonalak arautzen dituzten arau informalez baliatzen dena gizartearen jarrera eta kontzientzia baldintzatu eta horietan eragiteko. Imajinario kolektibo eta psikologikoan eragiteko mekanismoa da beraz jazarpen forma hau, gizarteko elementu ezberdinak jazarzaile bilakatu eta estatuaren papera betearazten diena.

Hau lortzeko izaera psikologikoko jazarpen metodoak baliatzen dira, gizartearen kontrol politikoa lortze aldera, helburua argia baita, indarrean dagoen sistemari aurre egiten dioten elementuen neutralizazioa, hauekiko mesfidantza sortzea, jazarzaileekin kolaborazionismoa eta salaketa giroa sortzea. Horretarako, jazarri beharreko gizarteko sektoreen deshumanizazioa burutzen da era sistematikoan, inpunitate giroa sortzeaz haratago, hau gizarteagatik erasotua eta jazarria izan dadin edota pairatzen duen jazarpenaren aurrean honek inolako erantzunik eman ez dezan. Hori bi eratan lor daiteke.

Alde batetik, beldurraren kulturaren ezarpenaren

bitartez, indar politikoei salbuespeneko legedia eta neurriak hartzerako orduan erraztasuna emateaz gain, ezohiko neurriak, batez ere, eskubide zibil eta politikoak murriztera bideratutakoak, betikotzeko aukera ematen duena, gizartearen zati handienaren onarpen eta babesarekin. Bestalde, adostasunaren eta bake sozialaren izenean, mugimendu iraultzailea, babestuago egongo delako edota jazarpen maila baxuagoa pairaraziko diotelako ustean planteamendu ideologiko eta politiko ezberdinak bere egitera behartuz, hauek hartuz gero jazarriak izango ez diren irudi faltsua baliatuta.


Jazarpen forma guzti hauen aplikazioak ondorio ezberdinak dakartza, Euskal Herriko borrokaren historian zehar, hainbat izan direlarik etsaiaren jazarpena pairatu dutenak. Asko izan dira atxilotuak. Atxiloketek militante politikoak gerora espetxean giltzapetzeko baliatzeaz haratago ezegonkortasun, beldur eta mehatxu egoera jarraitua sortzeko erabiltzen dira, estatuaren eta bere instituzioen nagusitasunaren eta erabateko gaitasun zein boterearen adierazgarri. Horregatik, askotan bai sarekada zein atxiloketa puntualen bitartez estatuaren gaitasuna adierazteaz gain, tortura burutzeko aukerak eskaintzeko bitarteko munduan baliatzen dira, gerora hauek pairatzen dituzten pertsonak aske utziz.

Asko izan dira, bestalde, Euskal Herri Langileak pairatzen duen jazarpen sistematikoko egoera dela eta, euren aberria utzi eta Euskal Herriatik kanpo

bizitzera behartutako pertsonak edo erbesteratuak. Asko izan dira deportatuak, estatuak atzerriko gobernuekin izaera sekretuko tratatuak adostu eta espetxeratu beharrean deserriraturiko militante politikoak, eta baita arrazoi politiko eta sozialengatik bere bizitokitik ihes egin eta beste estatu batean babesa bilatzen duten iheslariak ere. Asko izan dira hildakoak. Eta nola ez, asko izan dira eta dira oraindik ere preso politikoak. Preso politikoa, indarrean dagoen sistema eta berau ordezkatzeko duen estatuaren aurka, era aktibo eta kontzientean helburu kolektibo eta borroka politizatu bat aurrera eramanez, edota estatuak euren dinamika jazarritzailean gizarteko sektore baten aurka burutzen duen jazarpen sistematikoen ondorioz, arrazoi politikoengatik espetxeratuta aurkitzen den oro da.

Jazarpena eta honen ondorioak eguneroko errealitate bat dira, beraz, Euskal Herrian. Hala, Alternatiba Iraultzaileak Amnistiaren alde eta jazarpenaren kontra aritu behar den antolakunde sektorial baten beharra du, une hauetan eratze prozesuan dagoena eta Euskal Herriko hainbat txokotako militante mordoxka buru belarri dabilkiena lan horretan. Aldi berean, preso politikoen existentzia ahantzia izan ez dadin, hauek Euskal Herri Langilearen imajinario kolektiboan mantentzeko lanketa jarraitua burutuko da, jazarpenaren errudunak, hau aurrera daramaten instituzioak eta jazarpena bera ikusarazi eta salatuko dira etengabe eta amnistiaren defentsa irmoa burutuko da beti.





Irailaren 18an 31 urte beteko dira polizia espainolak Mikel Castillo gudaria Iruñean erail zuenetik. Euskal Herriaren historiaren zati hau ahanzturan gera ez dadin, Begoña Castillorekin egon gara eta gertatua eta bizi izan duena kontatu digu.

Zein oroitzapen duzu orduko testuinguru politikoaz?

Urte haien oroitzapena Euskal Herri konprometitu eta borro-

kalari batena da, lan munduan, politikoan, ikaslerian, zentral nuklearren aurkako borrokan, borroka feministan, Euskara berreskuratzeko borrokan (bereziki hemen, Nafarroan, horren zapaldua egon den eta dagoen lekua izanik), Leitzarango autobia (non ez zen errepide baten hobetzearen aurka borrokatzen, edozerk balio zielako aurrera eraman nahi zuten

suntsiketaren aurka baizik. Ez geneuzkan oso gobernatzaile zintzoak eta ardu-ratsuak, garaiko Nafarroako Presidente Gabriel Urralburuk berak bere ondarea gizendu zuen segurtasunaren kontura), Itoizko pantanoa, intsumisioa, drogen eta hauekin trafikatzeko zutenen aurkako borroka soziala...

Ez zen kasualitatea Europako herri txikienetakoa eta biztanleko polizia gehien duenetako bat izanik droga halako moduetan sartzea Euskal Herrian. Nola zen posible halakorik? Nik uste interesa egon zela horrela izan zedin, desaktibatze, gazteria bereziki. ETAk zuen babes soziala handia zen eta hori ezin onar zitekeen. Uste dut gaindosi, IHES eta arrazoi berarengatik eratorritako edozein gaixotasunekin belaunaldi oso batekin amaitu zutela. Eta batez ere errepresioa, oso oso garai gogorra izan zen. Atxilotuak zeuden, erailak, torturatuak... ezinezkoak ziren bertsio ofizialak, baina erabiltzeko arazorik ez zutenak eta inork zalantzan jartzen ez zituenak. Prentsaz eta politikoez ari naiz.

Gerra zikinaren sorrera ezkerrekoa zela suposatzen zen PSOEn gobernuaren eskutik etorri zen. Inoiz depuratu ez dena, eta depuratuko ez dena, Madrildik hasi eta Europa, Frantzia Baskongada eta Nafarroaraino eskuak zikinduta baitituzte, non, ez den inoiz ikertu ez eta ikertzeko asmorik egon ere. Are gehiago, era guztietako trabak jarri dituzte egia ekiditeko.

Nola bizi izan duzu indar polizialen eta estatuaren inpunitea?

Ospitalean, ahopean "bila ezazu abokatu bat, hil egin baitute" esan zidatenetik (oraindik ez dakit nork), banekien judizialki ez genuela zereginik.

Begira... Nire amari ospitaletik deitu zioten, nire nebak istripu bat

izan zuela eta oso larri zegoela esanez. Nire ama heldu zenean, nire neba hilik zegoen jada, gorpua errekonozitu behar zuen, arropak odolez beteak zeuden, eta nire amak esan zien "Baina zerk harrapatu du, kamioi batek?" eta aitzakiak jartzen hasi zitzaizkion. Ama erreakzionatu ezinik gelditu zen, berak zioen garrasi bat zuela bihotzean, atera ezin zitzaiona. Telefonoz deitu zidan, eta ospitalera joan nintzenean ez zidaten nire neba ikusten utzi, hilotzen deposituan zeukaten, baina hartu ninduen pertsonak "ezin duzu ikusi, atxikita eta inkomunikatuta baitago" esan zidan (lege antiterrorista aplikatu zioten). Nik banekien deposituan zegoela, baina... Jo! Hori esan zidaten eta altuan pentsatu nuen "Baina bizirik al dago?". Orduan, ahots hura entzun nuen "bilatu ezazu abokatu bat, hil egin baitute". Orduetik, banekien ez genuela zereginik judizialki, polizia zigorgabe aterako zela. Orduan pentsatu nuen, eta oraindik pentsatzen dut "bizi osoa daukat nire nebaren erailketa salatzeke, eurek bost axola didate". Nire neba bizkarrean emandako tiro batez erail eta egun batzuetara, zehazki 15 egun beranduago, Barne Ministerioak polizia hiltzailea kondekoratu zuen. Une hartan ikerketa irekita zegoela suposatzen zen. Eta beno! Erailketa bategatik salaketa duen pertsona bat kondekoratzeak argi uzten du ez dituztela formak ere zaintzen, hain zigorgabeak dira, horren ukiezin sentitzen dira, nazkagarria dela.

Ekitaldi horretara Iruñeko alkatea, Nafarroako Parlamentuko presidentea, barne eta presidentetza aholkularia eta Nafarroako gobernuko bozeramalea, Polizia buru nagusia, Nafarroako Abokatuen Elkargoko Dekanoa, Nafarroako Probintzia Audientziako Fiskal Nagusia (epaiketako fiskala dena), Nafarroako Justizia Auzitegi Goreneko Presidentea, Gendarmeria frantsesaren ordezkariak, Osasunako Presidentea

eta beste ez dakit zenbat pertsona "eredugarri" joan ziren. Niretzat kondekorazio hartan argi eta garbi hitz egin zuten. "Mikel ongi eraila dago". Beraz, nire nebaren irribarreak lagun ditzala opa diet.

Mikel "biktima" bat al da? Zure burua "biktima"tzat duzu?

Galdera zaila. Bai. Biktima bat da, biktimarik ez badago ez baitago deliturik. Anikilazio politika baten biktima da gainera.

Askotan, estatuaren biktimez hitz egiten entzuten dugunean, ETAkoak ez zirelako edo ez direlako errekonozitzen dira. Haietako asko torturatuak eta erailak ere izan dira, ETAkoak zirela uste izan zutelako.

Beraz, tortura eta erail zaitzaten uzten duen politika bat badago, zuretzat ez badago justiziarik eta errekonozimendurik ETAkoa zarela... argi dago estatu politika horren biktima zarela. Beste kontu bat da biktima pasiboa zaren edo ez.

Mikel Gudari bat da, gerta dakiokkeenaz jakitun bere konbentzimendu eta konpromisoarekin aurrera jarraitzen duen norbait. Niretzat hori maitasun ekintza bat da, zure bizitza konpromiso bati eskaintzea. Euskal Herria horrenbeste maitatzea, berdintasun ezarekin amaitzeko borrokatzeraino, horrenbeste maite duzun herri hori desager ez dadin bizitza emateko prest egotea.

"Mikel Gudari bat da, gerta dakiokkeenaz jakitun bere konbentzimendu eta konpromisoarekin aurrera jarraitzen duen norbait."

Ez zara inor derrigortzen ari konpromiso hori hartzera.

Nik esan ohi dut, niretzat Euskal Herriak ez duela nire nebaren bizitza balio, baina berarentzat horren garrantzitsua zen ezen bizitza eman ziola.

Bera eta bere herria zen.

Nire burua biktimatzen daukadan? Ba egia esan ez dut inoiz planteatu, ez dakit zer erantzun. Konpon ezin daitekeen mina sufritu dut, eta ETAko militante baten familia izatean... ez dakit, badirudi edozer onartzen dela gure aurka.

"Benemerita santua"ren kontrol baten oroitzapena dut, 4 orduetik gorakoa, sudur puntan jarri zitzaien guztia esan eta egin ziguten. Askatu gintuztenean pikoloetako batek (nire identitatea baieztatu eta nor nintzen jakinda) esan zidan "Hil nahi bazaitut hil zaitzaketa, niri ez baitzait ezer pasako". Eta, ostia! Arrazoi zuen. Nora joan nintekeen ni abusu hura salatzeraz?

Biktima naiz?... Erantzun ezinda jarraitzen dut...

Zein oroitzapen duzu Mikelez?

Pertsona alai batena, konprometitua, herri gisa pairatzen genituen injustiziekiko oso sentikorra. Euskararekiko oso konprometitua, ordurako hilik zela EGA gaitzitu izanaren jakin-arazpena heldu zitzaigun. Duela ez asko, Peñako neska batek (Mikel Peña la Jaranakoa zen) Mikelek Peñaren idatziak euskaraz ere egin zitezen zeukan borroka kontatu zidan. Une hartan, denak gazteleraz elkar ulertzen zutenez gero, ez zuten bi hizkuntzetan egitearen erabilgarritasuna ikusten, Mikel egitearen beharraz tematzen zen, eta orain, idatziak bi hizkuntzetan ikusten dituenen beraz oroitu eta "Lortu duzu Mikel!" pentsatzen omen du.

Haurra nintzela gurasoak Parisen zeuden lanean eta itzultzean esaten zidaten "Zer nahi duzu ekartzea?" eta nik, beti nahi nuen nebatxo bat, eta beno, azkenean ekarri zidaten.

Haserretzen ginenean esan ohi zidan "Nork nahi zuen neba bat? Zurea naiz erabat... Betiko. Gustura zaudela nirekin?" eta honela jarraitzen zuen barrez hasten nintzen arte.

Ez naiz gai "nire neba zen" esateko ere. Nire neba da.

Ospitalera bizirik iritsi zen baina kirofanoan hil zen. Niri 21 ordura eman zidaten nire neba.

Nola bizi zenuen zure nebaren erailketa?

Zoramen bat bezala, etxea jendez bete zitzaigun, kazetariak, poliziak, heltzen zihoan familia... ezin zen izan, ezin nuen negarrik ere egin barnean neraman min eta amorru guztiarekin. Dudan oroitzapen nagusia Mikel eman zidatenekoa da. "Atxikita eta inkomunikatuta" zuten, kontatu dizuet. Goizeko bederatziak eta laurden aldera egin zioten tiro, tiroa hilgarria izan zen, bizkarretik tiro egiteaz gain (esan zutenez, bala gorputzean sartzean lehertzen den motaren batekoa zen, uste dut "Dum Dum" balak deitzen zietela) barruan lehertu zitzaion eta txikitu zuen, aorta lehertu zioten, bizkar hezurra... Ospitalera bizirik iritsi zen baina kirofanoan hil zen. Niri 21 ordura eman zidaten nire neba. Ikusten utzi zidaten deposituko gela batean, lurtean kamilla batean, besarkatzeko lurrera bota behar izan nintzen. Aitari negarra zerion "zure neba" esan bitartean... inguratuta geunden ez dakit medikuz, poliziaz, epaitegiko langileez edo tanatoriokoez, edo guztiez batera.

Lurrera bota nintzen besarkatzera. Ukitzen zuen azkena maite zuen norbait izan zedila soilik pentsatzen nuen, ez jende ezezagun hori, eta besarkatu nuen. Badakit norbait ni heltzera joan zela, ez zidaten ukitzen uzten eta esan nion "utz iezadazu besarkatzen, ez baitut berriz edukiko", eta besarkatu nuen eta ukitu eta gainera bota beroa emateko, eta esaten nion "Pitxirriko, ni naiz" (nire nebak Pitxirrika deitu ohi zidan). Askatzera behartu nindutenean eta altxa nintzenean nire aita helduta zutela ikusi nuen, askatu zuten, eta besarkatu egin ninduen.

Beste oroitzapen bat gure etxea inbaditua edukitzearena da, erregistroa egiten zebiltzan poliziez, idazkaria (ez dakit epaitegikoa edo polizia berarena) aulki batean jarrita, nire neba... berriro ere eseriko ez zen aulki hartan. Amorruez esan nion "Nork eman dizu esertzeko baimena? Altxa zaitez hortik!". Noski altxa zela, suziri baten gisan. Nire amaren irudia dut ahozabalik, errespetu faltagatik errieta egiteko zorian zela uste dut eta niri begira geratu zen, ezagutuko ez banindu bezala. Ez dakit zer pasa zitzaidan burutik, baina tipa hori altxa izan ez balitz nik uste iletik arrastaka kenduko nukeela, andrea dardarka zegoen.

"Lurrera bota nintzen besarkatzera. Ukitzen zuen azkena maite zuen norbait izan zedila soilik pentsatzen nuen, ez jende ezezagun hori, eta besarkatu nuen."

Kazetari bat ere kanporatu nuen, bat-batean ohartu nintzen nire ama hizketan zegoela eta berak grabagailu bat zuela pizturik, eta galdetu nion "Grabatzen zabilta? Inori baimenik eskatu diozu? Alde hemendik, hau ez da eta zirku bat! Egia esan, horrenbeste jende zegoen gure etxean eta nire gurasoek halako atsekabea zuten, fronte guztiak kontrolpean eduki nahi nituela. Eta hori ezinezkoa zen.

Beste momentu oso gogor bat egun batzuk igarota bazkaltzera gindoazenean izan zen. Mahaia jarri nuen eta nire senarrak esan zidan "kendu plater hori, zure amak ikusi aurretik". Jo! Mahaia jarri nuen nire neba kontuan izanda, inork ez daki zer suposatu zuen niretzat plater hura kentzeak eta gainera normal jokatu behar nuen, nire ama deseginda baitzegoen, ezin ninduen leher eginda ikusi. Buah! A ze mina!

Une oso gogor baten oroitzapena da.

Mikelen erailketaren harira prozedura judizial bat jarri zen martxan. Azal diezagukezu zertan zetzan eta nola garatu zen? Zein izan da jarrera estatuko instituzioen aldetik? Eta Euskal Herriko mugimendu iraultzailearen aldetik?

Epaiketa txarlotada bat izan zen zuzenean. Nire neba bizkarrean emandako tiro batez erail eta 15 egunera Judikaturak, Nafarroan zituen ordezkarien bitartez, Kondekoratzean parte hartu bazuen, egun hartan epaia eman zuten jada. Nola epaituko zuten erailketa batengatik erailketa horrexegatik kondekoratu zuten pertsona? Zer egingo lukete gero? Domina kendu? Guri barkamena eskatu? Beste guztiak poliziak eta kazetariak ziren eta epaiketa osoa etengabeko iraina izan zen, estatuaren abokatuak eta poliziarenak "el individuo" zioten nire nebaz hitz egiten zuten bakoitzean, edozein gizatasun kenduz. Behin baino gehiagotan irentsi behar izan nuen altxa eta pikutara bidaltzeko gogo. Esan nion nire abokatuari "hori ez zenuen baimendu behar". Epalea eroso zegoen besaulkian, etxeko sofán balego bezala. Axolagabekeria nabari zitzaion, mespretxua, prepotentzia... Ze nazka!

"Epaiketa txarlotada bat izan zen zuzenean."

Niretzat iseka eta zentzugabekeria sorta besterik ez zen izan. Adibidez, lekuko batek, hiru identitate ezberdin eman zituen, ez zitzaizkion behar bezalako presioa eta galdeketa egin. Emakume bat zen (Mikelek arma bat zeramala esan zuen lekuko bakarra, gerora "ziur ez zegoela" esanaz bere hitza jan zuena) eta bikain oroitzen zen Mikelek zeraman arropaz eta jertsearen zein zapaten koloreaz.

"Mikel, inoiz ez da epaitu inolako kasuren batengatik eta ez zen inoiz kondenatua izan, baina jada erruduna zen."

Prentsari esan zion Mikelek arma bat zeramala eskuan, literalki pistoloi bat zeramala esan zuen. Epaietan, ez zen oroitzen hori esan zuenik eta ez zegoen ziur arma batekin zihoan edo esku artean zerbait zeraman. Ostras! Jertsearen koloreaz oroitzen zara eta eskuan pistola bat zeraman ez. Ez dakit, niri hori ez zitzaidan sinesgarria iruditu. Mikel lurrean zegoela poliziak berriz tiro egin ziola ere esan zuen. Mikelek tiro bat zuen bizkarrean. Nola ikusi duzu eta non dago bigarren tiroa? Beno, ba hori izan zen sinesgarritasuna eman zioten lekukoa, prentsan esan zuen guztia esanda. Urteak pasata, heldu zitzaigun polizia batekin enrollatuta zegoela, seme bat zuela eta droga kontsumoan galduta zebilela eta duela gutxi semea kentzearekin mehatxu egin ziotela eta, agian, jada hilik zegoela kontatu zidaten, kaka eginda baitzegoen. Tribunalak, emakume honek esan zuena jasotzen zuen zinta eskatu zion Diario de Navarrako kazetariari, eta kasualitatea, galdu egin zuten. Amnistia Internazionalek, armatuta zihoala frogatzeko Mikeli eginiko parafina proben emaitzak eskatu zizkieten. Lekukoek eta analisiok ezetz zioten. Ba espainiar autoritateek analisisoz libratu zirela erantzun zuten, ez baitziren garrantzitsuak kasurako. Mikel armaturik ez zihoala eta tiroteoaren bertsioa egia ez zela frogatu behar zela suposatzen zen kasu batean frogetz libratzen zara? Frogez libratu izanaren arrazoi bakarra nire nebaren eskuen analisiok armarik ez zeramala esaten zutela da, tiroketaren bertsioa are gehiago gezurtatuz, gainera, poliziak bakarrik egingo zukeen tiro. Mikelek bizkarraren erdian zuen tiroa eta profesionala den

gizon batez ari gara, tiro egiten erakusten diotenetakoa, bere lanaren zati da alegia.

Tribunaleko gela zegoen korridorean nire bila etorri ziren, lurrera bota, kolpeak eman eta iletik tiraka altxa ninduten, zerbikaletako lesio bat dut (mediku batek konfirmatu zidan urte batzuk geroago minagatik egin nuen errebisio batean), karateko kolpe bat eman zidaten "groggi" utzi ninduen. Fiskala handik zebilen, Amnistia Internazionaleko abokatua eta kazetariak ere bai. Inork ez zuen ezar esan.


Tribunalaren aldetik ere ez zen Mikel armatu gabe zihoala frogatzeko interesik egon, frogen eta lekukoen aitortzen gainetik eta hala jaso zuen Amnistia Internazionalek EUR 01/03/92 dokumentuan.

Niretzat, hasi aurretik jada Mikel erruduna zen epaiketa bat izan zen hau eta abokatuen lana hala ez zela frogatzea zen (suposatzen dut ez zela erraza). Mikel, inoiz ez da epaitu inolako kasuren batengatik eta ez zen inoiz kondenatua izan, baina jada erruduna zen.

Estatuko instituzioen partez ez nuen espero eta ez dut ezer jaso irain eta gutxiesteetatik haratago. Baina beno, ez nuen gehiago espero. Kontuan izan GALEn garaia zela, Iruñeko polizia burua GALEko kide izatearren ikertua izan zela, Irunen (bere aurreko destinoan) Blancoanieves bezala ezagutzen zuten; hemen Nafarroan, nafar gobernuko presidentetik nafar gobernuko delegaturaino, beste askotatik pasata, kondenatuak izan zirela ETArek aurkako borrokaren aterkipean emandako ustelkeria kasuengatik; Madrilen GALEn buru politikoa guztiak zeudela, X-tik hasi eta artaburueneraino.

Guretzat inpunitatea egon da eta soilik inpunitatea dago.

Gaur egun, oraindik ezin izan dut lortu ez epaietaren transkripzioa ez eta autopsiaren informea ere, ospitaletik desagertu baita.



Euskal Herriko mugimendu iraultzaileen aldetik, protesta eta salaketak egon ziren. Garai hartan Ezker Abertzalea indartsua zen eta ETA ere bai, eta zentzu horretan bai sentitu nintzela lagundua, bai jendearengatik eta baita HB-rengatik ere. Gertatzen da garai oso konplikatuak ere badela gauza askotaz kontziente izateko, daramazun haustura emozional guztiarekin zure lekua zein den ere ez dakizun mundu batean sartu zara, oroitzen dut neu izateari utzi niola "...ren arreba" izateko eta egun batean haserretu nintzen, presoan aldeko bazkari batean, norbaitek "Mikelen arreba" deitu zidan eta altxa eta "Begoña dut izena, ostia" erantzun nion.

Beste sentsazio bat mundu guztia Mikelen edota familiaren izenean hitz egiten ibili izanarena da, baina guri inork ez zigun ezer galdetzen. Nire iritziz, hor Ezker Abertzaleak senideengan pentsatu eta gure lekua ez ematearen akatsa izan zuen.

Noizbait kexatu izan nintzen hartaz eta orduan "Mikel gurea da" erantzuten zidaten. Ostras! Zurea izango da baina Nik lurperatu dut eta Ni gelditu naiz nire nebarik gabe, ezin nauzu utzi zure agintepeko monigote bat baintzan.

Zer irudituko litzaizuke Justizia?

Niretzat hemen giza eskubideen urraketa egoera bat zegoela aitortzea izango litzateke justiziazkoa, gutxieste bat herri gisa. Nire neba ez zela egun batean "gaur tiro batzuk botako ditut" esanaz altxa, ez, ez... hori ez da justua. Hemen erakunde armatu bat zegoen jendeak "ETA mátalos" oihuka zezan besteko babes soziala zuena.

Mikel ETArek existentziarekin jaio zela (50., 60., 70.... hamarkadetan jaio ginen guztiok bezalaxe), armak utzi eta disolbatzea erabaki zuen arte. Oroitzen dut telebista programa bat non elkarriketa batean Otegik garai batean ETAk 15.000 militante zituela zioen eta beste asko sartzeko prest.

"Ez zirela ez zoro batzuk, ez herriarentzat arrotzak ezta arazo mentalak zituzten pertsonak ere"

Euskal Herria oso herri txikia da, bere bizitza konprometitzeko prest dagoen jende kopuru horrek ez zuen inor kanpo uzten, familien gehiengoak genuen baten bat gertu edo barruan. Ez zirela ez zoro batzuk, ez herriarentzat arrotzak ezta arazo mentalak zituzten pertsonak ere, kasu gehienetan bizitza eroso bat izateko besteko ikasketa eta prestaketa zuten pertsonak zirela.

Justiziazkoa litzateke anikilazio politika bat zegoela aitortzea, hiltzera tiro egitea zela modus operandia, nire neba beste asko bezala atxilotua izan zitekeela eta ez zutela egin nahi izan, hobeto ateratzen zitzaielako erailteza.

Niri urte guzti hauetan ezkerreko zein eskuineko jende eta politikariek aitortu didate nire nebarekin egin zutena erailketa bat izan zela, baina inoiz ez dute altuan esaten. Hori bera bada bere baitan daukagun politikari motaren erakusle. Justizia eta giza eskubideek atera ditzaketen etekinen arabera soilik axola

diote. Gure senideak kaxoi batean dituzte, elkarri jaurtitzeko unearen zain, Gudari horien duintasunak askorik axola gabe.

Zein iritzi duzu errelatoaren gainean estatua aurrera eramaten ari den ofentsibaren eta antolakunde politiko ezberdinak izaten ari diren jarreraren inguruan?

Lege dekretu bidez, zuk memoria eskubiderik, egia jasotzeko esku-biderik eta justizia eskubiderik ez duzula erabakitzen dutenean. Buru gainean ETAk militante bati buruz hitz egin eta merituren bat aitortzen badiozu terrorismoari gorazarre egiten ari zarela dioen lege bat jartzen dizutenean, gorrotorako deia egiten ari zarela, "biktimei" umiliazio bat. Argi dago pertsona hauek euren bertsio ofizialek eta euren bozeramaleek diotena ez direla erakusten duen errelatoak asko izorratzen dituela, euren gezurrak erakusten dituelako. Nolabait isilarazi behar gaituzte.

Antolakunde ezberdinen jarrera men egitearena da. Bilduko parlamentariak telebistan barkamena eskatzen ikusten ditudanean "Baina zuk, nola eska dezakezu barkamena beste baten izenean?" esateko gogoia sartzeko zait. Ez dut ulertzen. Duela gutxi VOXeko bati bere mina sentitzen zutela esaten. Mesedez! Gerra zibil bat ekarri zuen estatu kolpe bat babesten ari direla, muturreko txirotasun egoeretan dauden pertsonen laguntzearren gurutze gorriko boluntario bati tuntuna deitzen dion alderdi politiko bat dela, emakumeenganako biolentzia matxista, erailketak eta tratatu txarrak ukatzen dituen alderdi bat, Hamahiru Larrosei bortxatzaile deitzen dietenak, extermina gaitzaten nahi duen jende bat. Euren mina sentitzen duzula esaten diezu, zoaz antzarrak ferratzera. Noiz aitortu dute Euskal Herriari eragindakoa minik? Hau uler daiteke? Zer gara bigarren mailako kalteak? Edo ez gara existitu ere egiten? Edo ez dizuegu axola? Ez dakit zein

azalpen bilatu ere ulertu ahal izateko. Edo ETA berak, oso ongi deritzot borroka armatuari uztea, ni hor ez naiz sartzen, baina, barkamena eskatzen duzu? Eta non uzten dituzu eta nola zure militanteak? Ez dugu azalpenik merezi eraildako militanteen senideok? Ez al gara inor?

Bada informazioaren garai honetan memoriarik ez dugula baieztatzen duenik. Zer iritzi duzu baieztatzen honi buruz?

Ez dut uste memoria kontua denik, gauzak oso azkar doaz eta jende gazte ugari dago. Jo! Gertatua kontatzen diozunean jakitea interesatzen zaiona, nire esperientzia gazteriarekin oso positiboa da eta gazteria da bereziki komunikazio teknologiak jakin eta gauzez enteratzeko erabili eta erabiltzen jakin behar duena. Nik, Mikelen eta gertatu zenaren inguruan hitzaldiren bat ematen dudanean zera esan ohi diet "ez duzu zertan nik kontatzen dizudana sinetsi, baina zantzarik baduzu kontrasta ezazu". Egun ditugun askatasun eta eskubide guztiak ez dira inondik inora oparituak izan, borrokaren bidetik eta sufrimendu askorekin lortu dira, eta hemen Euskal Herrian, Mikel asko egon dira. Iruñean, Maravillas gaztetxean Mikeli buruzko hitzaldi bat antolatu zuten duela hiru urte eta sekulakoa izan zen. Tratua... eta ostia! Inork ez du eskubiderik zure herriaren historia ezagutu dezazun ukatzeko, azken finean, zure historia ere bada. Bertsio ofizial bat eman nahi dute soilik eta alde bakarrarena. Gainera alderdi emozionaletik ere oso garrantzitsua da gazteriak Mikel (kasu honetan) zein izan zen jakiteari garrantzia ematea.

"Egun ditugun askatasun eta eskubide guztiak ez dira inondik inora oparituak izan, borrokaren bidetik eta sufrimendu askorekin lortu dira"



Halako elkarrizketa bat Mikel erail eta 30 urtera pintzelada txiki bat da, memoria alboratua duenak hala nahi duelako egiten duela adierazten duena. Gero ireki berri dituzten bulego hauek daude, gobernu autonomikoak... ni Nafarroakoaz ari naiz, hau baita ezagutzen dudana eta kaka zaharra da, hizki guztiekin. Egin duzula esaten dutenaren arabera sailkatzen duen bake eta elkarbizitza bulego bat (honek soilik balio du erakunde armatu bateko kide bazara), izan ere, inoiz ez dituzu entzungo beste "biktima" batzuek egin dutenaz hizketan. ETAko militanteak soilik jartzen dira auzitan, beraz, bulego hauek gobernuan dagoenaren eta boto edota argazki politik ematen dienaren arabera existituko dira.

Argi dago ez dutela balio estatuak eragin dituen kalteak aitortzeko eta gu erasotzen jarraituko dutela, dendak yogurtak bezala sailkatzen baikaituzte, hauek dira onak eta horiek txarrak. Nire ustez ausardia eta integritate handia falta da, eta noski, ETAko militanteen erailketek konplexurik gabe hitz egiteko gai ez diren bitartean, giza eskubideen urraketak azpimarratuz eta beste edozein interes alderdikoiez haratago, ba ez dute min gehiago eragiteko besterik balioko.

"Mikel hilik dago. Irainak, familiaren aurka doaz eta baita defenda ezin daitekeen norbaiten memoriaren aurka ere."

Irailaren 18an, 31 urte izango dira nire neba erail zutenetik, eta nik, oraindik ezin izan dut kapitulua itxi eta ez dut dolurako tarte bat izateko eskubiderik izan. Are gehiago, duela urte gutxi Nafarroako Gobernuak funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko biktimen erreparaziorako ekitaldi bat burutu zuen parlamentuaren aginduz. Gonbidatu egin gintuzten eta joan egin ginen... Telebistako programa bat eta guzti egin zuten ondoren, non, tertulianoek nire nebaz edozer esan zuten. Suabeena terrorista eta hiltzaile, literalki. Inongo momentuan ez zen bulego hori familia bat defendatzera irten. Mikel hilik dago. Irainak, familiaren aurka doaz eta baita defenda ezin daitekeen norbaiten memoriaren aurka ere. Telefonoz deitu ninduten eta esan nien "Aizue! Hau gelditu beharra duzue eta ozen esan, hau da, niri ez esan pribatuan sentitzen duzuna, joan zaitez pikutara salduta utzi bainazue".

Zer sentitzen duzu Galindoren gisako figurak euren ohean eta inpunitate osoz hiltzean?

Nazka! Baina oroitzen dizuet diktadorea ere ohean hil zela eta bere familiak honek utzitako herentziatik bizi dela, baten batek titulu nobiliarioa ere badu, Marques de Franco, Espainiaren ohorerik gorenerako. Eta nik Espainiaz ez dut ezer espero. Ez ditu bere zerbitzariak eta hauen krimenak zigortuko.



jardun_koordinadora



jardun_koordinadora



JARDUN_KOORDINADORA
@JardunK



www.jardunkoordinadora.com